



UPV/EHuren Udako Ikastaroen Fundazioa

Sozietatearen izena

Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU.

IFK

G20448056

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 1993ko otsailaren 22an eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen ["UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioa" onartzen, sailkatzen eta Fundazioen Erregistroan inskribatzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Kabinete Teknikoaren zuzendariaren 1994ko martxoaren 18ko EBAZPENAREN](#) bidez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8532 Bigarren mailako teknika- eta lanbide-hezkuntza.

Fundazioaren xedea eta helburua

Irakaskuntza-jarduerak antolatzeaz eta unibertsitatea zabaltzeaz arduratzen da fundazioa, udan batik bat. Honako xede hauek ditu:

- Donostian udako ikastaroak eta Europako ikastaroak antolatzea,
- eta horrelako beste hainbat ikastaro antolatzea, horien integrazioa edo sortzea fundazioaren Zuzendaritza Kontseiluak alde aurretik erabakita.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Fundazio-zuzkidura

30.051 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Euskal Herriko Unibertsitatea: %100

Errektore Kontseilua

Fundazioaren gobernuaren, administrazioaren eta ordezkartzaren ardura osoa Errektore Kontseiluaren esku uzten da, honako kide hauez osatua dagoena: UPV/EHUko errektorea, Errektore Kontseiluko burua dena; errektore taldeko lau ordezkari; Unibertsitatearen gerentea; UPV/EHUko Gobernu Batzordea osatzen duten kolektiboetako ordezkari bana; eta gehienez ospe handiko bost pertsona, UPV/EHUko errektoreak zuzenean hautatuak. Ikastaroetako zuzendariak ere izango dute Errektore Kontseiluaren bileretan parte hartzeko aukera; hitza izango dute, ez ordea botoa.

2013ko ekitaldiko urteko kontuak

[2013ko abenduaren 31ko urteko kontuak.](#)

2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	211.059 €
Ondare garbia	46.603 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	10

Sozietatearen helbidea

Miramar Jauregia-Mirakontxa, 48 - 20008 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

Webgunea

www.sc.ehu.es